

1. BALOREZKO PROPOSAMENA

Zer behar edo arazo konpontzen duzue?

Zer bereizten zaitu eta, beraz, zergatik egongo da bezeroa zuri ordaintzeko prest?

- Guk aukeratu dugun produktuak orain arte merkatuan ezaguna egin ez den txamarra bat da. Txamarra honek duen berezitasun nagusia, barruan berogailu bat duela da eta beraz hotza egiten duen egunetan oso lagungarria da. Guk aukeratutako diseinuaz gain, bezeroek gure enpresara deitzeko aukera izango du eta bakoitzak bere txamarren tamaina edo berezitasunak proposatzeko aukera izango du gure bezero guztiak konforme egon ahal izateko beraien produktuarekin. Bestalde, esan beharra dago, txamarrak izango duen prezioa ez dela oso altua izango. Bestalde, oso erraza da erabiltzeko eta txamarra berogailua martxan dagoela eta itzalita dagoela erabiltzeko aukera izango du bezeroak. Azkenik, txamarraren kalitatea ona izango da, batez ere mendian egiten diren kiroletan ibiltzeko; hala nola, eskiatzen ibiltzeko, mendira joateko neguan, hotza egiten duenetan ibiltzera joateko...